

OGI TXIGOR PRESTATZAILEA

KOSTUEN EGITURA



Gure proiektuak edukiko dituen kostuak honako hauek izango dira:

Hasteko, lokal propio bat izango dugu gure produktua saltzeko eta horren inguruko informazioa eskaintzeko bezeroei. Horrekin batera, galderak izanez gero, bertan bezeroekin harremanetan jarri ahalko ginateke. Lokala alokatuta izango dugunez, hainbat kostu finko izango ditugu, beti kopuru bera ordainduko dugulako. Batetik, alokairua 500€ ordaindu beharko dugu. Bestetik, hau funtzionamenduan dagoenean izango ditugunak: argindarra, elektrizitatea... Bestalde, telefonoaren tarifa ere aurkitzen da, hilean 25€koa izango dena. Eta azkenik, ordenagailuaren prezioa dago, non bakoitzarena 600€koa izango dena.

Gure diseinua, Espainian ekoitziko da, baina internazionalki salduko da. Horrek beste kostu bat izango du, eta makina bakoitza egiteagatik, 150€koa izango da. Baina kostu hau eskatutako produktuen arabera izango da, hots aldakorra. Hala ere, era berean, zeharkakoa ere izango da, guk ekoitzi duen fabrikari ordainduko diogulako eta hartatik fabrika hartako langileei ordainduko delako. Baina guk hemen garestiago salduko ditugunez etekina izango dugu.

Beste kostuetako bat garraioa izango da, lehenengo ekoitzitako tokitik gure lokalera eta lokaletik bezeroen etxeetara. Garraio hauen kostua DHL enpresak egingo du 30€ 100-150 kiloko izango da. Ondoren, bezero bakoitzari bere produktua bidali behar zaio, eta horren kostua ogi txigor prestatzaile bakoitzeko 4€koa izango da. Kostu guzti hau zuzena eta aldakorra izango da aldi berean eskaeraren arabera. Gure produktuaren bilgarria egiteko, horretan espezializatua den enpresa batekin jarriko gara kontaktuan. Horrela, segurtasun osoz garraiatu ahalko da gure ogi txigor prestatzailea. Horietako bakoitzak 5€ balioko du. Makina barruan joango diren 10 kapsulako kutxa bakoitzak, 1.50€ kostatuko zaigu. Gero, saltzeko momentuan gehiago balioko dute, era honetara etekinak izango ditugu.

Horretaz gain, langileen soldatak ere ordaindu behar ditugu. Bakoitzak hileko, batz bestea 1200€ irabaziko ditu. Beti ere bakoitzaren lanaren arabera. Hortaz, kostu hau zuzena eta finkoa izango da.

KOSTUAK LEHENENGO HILABETEAN:

Materiala	Diru kantitatea	Kopurua	Guztira
Ordenagailuak	600€	x5	3000€
Lokala	500€hilean		500€
Telefonoa	25€hilean		25€
Garraioa fabrikatik lokalera (DHL)	30€ 100-150 kiloko		
Garraioa lokaletik etxeetara	4€ entrega bakoitzeko		
Fabrikazioa	150€ makina bakoitzeko		
Soldatak	1200€	x5	6000€
Bilgarria	5€bakoitzak		
Kapsulak	1.50€ kutxa bakoitzak		